

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA



ETXETIK PLAZARA

AMERIKETARA JOAN NINTZEN...



SARIA:
Urdazubiko
NIKOLAURENEA
jatetxean
bi lagunentzako
otordua

2015eko BURUILA 144. ALEA

IRAKURLAN

NESKA BERATAR BAT “NESKATO” NEVADAN



Nor ote neska hau?

Berako baserri baztertuenetako batean jaio zen, Meakan hain zuzen, Garaitarreta auzoan 1886. urteko abuztuaren 21ean. Ttikia zelarik, Ugainborda baserrira aldatu zen familia, Suspela auzora. Gurasoak Martin Zugarmurdi eta Modesta Migelperizena ziren eta bederatzi senide, bederatzi horietako bat “ipuin” honetako protagonista: Fabiana.

Fabiana, Ttipio etxera joan zen lanera, eta bertan bi urte egin zituen. Beratik, Donibane Lohizunera eta bertan Biarritzko sukaldari handi batekin aritu zen, hura nonbait hagitz gogorra zen; baina Fabianak horri zukua atera zion eta sukaldari ona izatea lortu zuen. Hortik lanean lortutako diruarekin Ameriketara egin zuen salto, ez bakarrik, ordea, Berako Zeledoniarekin baizik.

1912. urtean New Yorkera biak ailegatu eta bertan trena hartuta Renora abiatu ziren. Renon Euskal Etxera jo zuten eta han emandako laguntzari esker lana aurkitu zuen Indartenea arrotzetxean; zortzi hilabetez gogor lanean arituz, diru ederra irabazi zuenez, Ameriketara joateko itsasontziaren txartelak bidali zizkien bere hiru anaia gazteenei.

Indartenea etxera euskal artzain anitz joaten omen zen, batez ere, hortzak berritzera joaten omen zirenak, eskorbutoa izeneko gaitza baitzuten etsai; izan ere, mendian artzain zeudelalarik ez baitzuten ez barazkirik ez frutarik jaten, eta ondorioz, hortzak galtzen zituzten.

Indartenea etxera Peio eta Pierre Iriart baigorriarrak ere joaten zirenetako batzuk ziren. Haiek bertze artzain batzuekin arrantxo bat erosi zuten. Peio eta Fabiana bertan ezagutu, gustatu eta ezkondu egin ziren.

Nola ezkondu ziren? Peio artzaina mutilzahar aberatsa zen, arrantxoko nagusietan handienetakoa. Berrogeita zortzi urte zituen eta Indarteneako etxeoandreaki erran omen zion “*neska garbi langile bat ikusten baduzu deitu*” Fabiana etxe horretara etorri zenean, etxeoandreak erran zion: “*Fabiana, ezkondu beharko duzu?, nolatan etorri zara honaino*” Fabianaren erantzuna: “*Ameriketara joan behar nuela eta han mutil aberats batekin ezkontzea sartu zitzaidan buruan. Beran nire gizongaia oskina* zen, elkar maite genuen; egun batean, ordea, nire ingurua begiratuta hauxe erran nuen: gazteak gara, seme-alaba anitz izanen ditugu. Gogor egiten zitzaidan pentsatzea hurrek ogi puska galdetuko zidatela eta nik ezin eman*”.

Etxekoandrea isildu zen eta jarraitu “*urtean behin dator honat gizon langile eta aberatsa, horixe da ona zuretzat*” Elkar ezagutu eta baita ezkontza erabaki ere. 1913. urtean ezkondu ziren...

IRAKULAN

Nola bukatu ote zen ipuina dirudien benetako istorio hau?
Bi aukera emanen dizkizuegu ea zuek antza ematen diozuen!



A) Ezkondu eta hiru haur ere izan zituzten, bigarrena, ordea, bi urte zituela hil zen. Peio izugarrizko ondasunen jabe egin zen, bai lurrez eta bai aziendez. Baina, Fabianak ikusirik beren seme-alabentzat nahi zuen etorkizunik ez zela izanen, arrantxoa saltzea erabaki eta Reno hirira joan ziren bizitzera. Renotik gero San Frantziskora eta handik Euskal Herrira etorri ziren. Beraien sortetxeetara bisita egin ondoren, Donibane Garazin kokatu ziren, bertze bi haur izan zituzten. Peio 1929an hil zen, Fabiana, berriz, 1979an zendu zen lauretan hogeita hamahiru urte zituela.

B) Ezkondu eta hiru haur izan zituzten, bigarrena, ordea, bi urte zituela hil zen. Peio izugarrizko ondasunen jabe egin zen, bai lurrez eta bai aziendez; baina jokoan hasirik, dena galdu zuen eta arrantxotik Reno hirira jo zuten. Fabianak gogor lan egin behar izan zuen sukaldari bertako jatetxe batean, eta Peio bertan utzirik, bere seme-alabekin Euskal Herrira etortzea erabaki zuen. Berara etorri zen, bai, baina azkenik Donibane Garazin zendu zen lauretan hogeita hamahiru urte zituelarik.





LAN eta LAN

AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Testua irakurri ondoren, horra hari buruzko galderatxo batzuk. Aukera itzazu erantzun egokiak.

1.- Fabiana Berako baserri baztertuenetako batean sortu zen.

Zer erran nahi du?

- a) Baztertuen zela.
- b) Baztertuta zeudenetako bat zela.
- c) Baztertutako bat zela.

2.- Indartenea etxera etortzen zirenetako bi Peio eta Pierre ziren.

Zer erran nahi ote du?

- a) Bi etortzen zirela.
- b) Etortzen ziren biak.
- c) Anitz etortzen zirela eta haietako bi, Peio eta Pierre.

3.- Nola idatzi behar da?

- a) 1.886. urtean.
- b) 1.886garren urtean.
- c) 1.886 urtean.

4.- Sukaldari ona zelako. Edo?

- a) Ona baitzen.
- b) Zergatik ona zen.
- c) Zer ba ona zen.

5.- Nola ote da?

- a) Elkarren maite ziren.
- b) Elkarri maite zioten.
- c) Elkar maite zuten.

6.- Hurrek ogi puska bat galdetuko zidatela, edo?

- a) Itaundu ziotela.
- b) Eskatuko ziotela.
- c) Erregutu ziotela.

Anitz izan dira gure eskualdetik Ameriketara joan direnak: artzain, neskame, okin, kirolari, iheslari ... Fabianeranak bezala, anitzen bizitzak bitxikeriaz betetako hamaika kontakizun utzi _____1_____, filma baterako gidoia emanen lukete. Oraingoan Ameriketara joandako artzainen bizipenak eta istorio zertzelada batzuk bildu ditugu. Testuko hamar hitz kendu ditugu eta _____2_____ mukuruetan paratu. Bila itzazu zuzen idatzitakoak.

ERNE, SARIRAKO!

Misissippiren ekialdearen estatuetara: Wyoming eta Coloradora joaten ziren Nafarroako artzain gehienak. California, Idaho, Arizona eta Nevadan ere anitzek ametsak eta etorkizun hobearen nahiak bete zituzten. Nafarrak _____3_____, iparraldekoak, gipuzkoakoak eta bizkaitarrak ere izaten ziren artzain eta langileen zerrenda bukaezina osatzen zutenak.

Gure eskualdeko artzainei dagokienez, aipatu behar da orokorrean hiru urteko kontratua sinatuta joaten zirela, eta jornala lehendabiziko urtean 200 dolarrekoa izaten zela, ondorengo bi _____4_____, berriz, 300 dolarrekoa.

Hasierako kontratu horiek lotzeko Elizondoko Marin Gestoriaren lana azpimarratu behar da. 1959. urte arte artzainak era librean joaten ziren, urte hartan, Asociación de Ranchos del Oeste izeneko elkartearen sorrerari esker, erraten ahal da langile horien baldintzak hobetu zirela, _____5_____ bertan bizitzeko behin betiko baimena eskuratzeko aukera ere ahalbidetu zela. Azpilkuetako Joshe Mendiburu elkartearen lehendakaria izan zen.

Baztan, Bortziriak eta Malerrekako hainbat baserri eta _____6_____ pasa den mendean zehar anitz izan dira joandako artzainak: Txoperenataarrak, lantzitarrak, Tabernataarrak, Etxartetarrak, Jorajuriataarrak, Igoataarrak, Zelaietataarrak... Pertsona bakoitzaren giblean istorio, gertakizun... franko dago. Hainbat emakumek ere bidaia luze hori egin zuten, etorkizun hobearen iparrorratza izanda. Batzuetan anaaien atzetik, bertzeetan bakarkako abentura eta bertze anitzetan abentura bila edo gosetik alde eginda. Edozein _____7_____ bezala, amodiozko osagarriak ez ziren falta: korreoaren bidez egindako bikoteak, bertan sortutako harremanak, Euskal Herrian sortutakoak eta Ameriketara jarraitutakoak...

Artzain horien bizitzak liburu, bertso, abesti, _____8_____ andanaren inspirazio iturri izan dira. Hona hemen sorta bat: Sunbillako Shilbestre Marizkurrenak _____9_____, Ameriketako abenturatik etorrira, herrira lehendabiziko kotxea ekarri zuen. Sunbillako Juan Miguel Apeztegiak ere aipamena merezi du apezpiku mormoi izatera ailegatu baitzen. Adibide hauetaz gain, erran behar da pertsona bakoitzaren atzean istorio, bizipen, gertakizun... pila badela. (zorionez, bilduak daude). Zabala eta anitza da artzain horiek utzitako arrastoa: ekonomian, kulturen, hizkuntza, ohituretan... Denetarik nozitu zuten: gaitzak, gosea, bakardadea, herrimina... Batzuek bertan bizi-proiektua eraiki zuten, beste batzuk, ordea "txokora" itzuli ziren. Hala ere, Euskal Herriak itsasoaren beste aldeko herrialdeak lotzeko zubi franko altxatu ziren. Zubi horiek zeharkatzen ahal dira, gaur egun ere, zubi horiek, erabiltzen dituzte munduko edozein txokotatik etorkizun hobe baten bila mugitzen diren _____10_____ mendeko emigratzaileek.

1.- a) dizkigu
b) digu
c) gaitu

2.- a) bettiko
b) beitiko
c) beheitiko

3.- a) ez ezik
b) ezik
c) ezezik

4.- a) urtetan
b) urtean
c) urteetan

5.- a) eta
b) baita
c) baita ere

6.- a) etxetatik
b) etxetik
c) etxeetatik

7.- a) filmatan
b) filman
c) filmetan

8.- a) istoria
b) istorio
c) historia

9.- a) 1936an
b) 1936en
c) 1936ean

10.- a) XXlgarren
b) XXI
c) XXI.

BOTA BERTSOA!

Ameriketeko bidaiak abesti eta bertso anitz utzi dizkigu. Hona hemen Xalbadorren "Ameriketako Itzulia" bertsoetik hartutako zortzi zati. Oin batzuk kendu ditugu eta beheko taulan paratu ditugu ea denak dagokion tokian sartzen dituzun.

1 Iragan den urteko urriko bortzean,
Amerikarat buruz, ortzegun goizean,
nindoan sendimendu asko _____ 1 _____
alde batean pena, plazarra bertzean,
zer uzten nuen ta zer hartzen _____ 2 _____

2 Deliberatu nintzen etxekoen uztera,
semeak sustaturik haren _____ 3 _____,
bihotza zabilkitan batetik bertzera:
bertzeak utzirikan bat _____ 4 _____
horra zer ziren ene pena ta plazarra

3 Ibil aldi hortako aldeko lagunak,
ni bezala nituen denak _____ 5 _____
ene kasu berean bidean emanak:
utzirik etxekoak eta beren lanak;
norbaiten ikusterat harat _____ 6 _____

4 Nola ibili ginen bide luze hortan,
ez naiz egun sartuko xehetasunetan
bururaino heltzeaz denak amentsetan,
gero zer atesegina gure bihotzetan
jautsi ginelerikan Los Angeles ´etan!

5 Amerikatik eta hunarat artea
ibili denak daki zonbat den _____ 7 _____;
maite direnetarik hola berextea
bizi labur hunetan, o gauza _____ 8 _____!
arabera atsegin berriz ikustea!

6 Maitetarik joan nintzan maiteen _____ 9 _____,
sartu banitz bezala etxetik etxera,
han baititut semea eta bi _____ 10 _____,
hainbertze lehen kusi ta hiru izeba,
koinatak ere hiru, ilobak ere ba.

7 Bilgia nagusia izan arren Chino ´n,
ibilia naiz ere ikuska Idaho ´n
koinat iloben baitan gero San Francisco ´n
miserian nintzala ezeldurrez egon,
iragan dut hon gaindi zenbait gau egun on.

8 Inguratu zauzkitan euskaldun nobleak
ene bihotz xokotik ez daude gordeak;
gogoan daduzkidan gizon ta _____ 11 _____
ene ongi-egile parerik gabeak,
merezi nuen baino aunitzez _____ 12 _____



Aita-semeak Ameriketan

zoazanak - arreba - hobeak - xehetasunetan - bihotzean - besarkatzera -
artera - luzea - andreak - orroitzean - ikustera - euskaldunak - tristea

ERANTZUNAK

IRAKURLAN 2 (3. or.): A zatia

LAN eta LAN (4. or.):

1- b; 2- c; 3- a; 4- a; 5- c; 6- b

BOTA BERTSOA! (6. or.):

1) bihotzean; 2) orroitzean; 3) ikustera; 4) besarkatzera; 5) euskaldunak; 6) zoazanak; 7) luzea; 8) tristea; 9) artera; 10) arreba; 11) andreak; 12) hobeak

143. aleko sariketa erantzunak – mikrolPUINak (6. or.):

1- haur-egite; 2- mingarria; 3- menea; 4- gizaldi; 5- arakatu; 6- haragikeriatan...; 7- txortan; 8- urrundu; 9- iristen; 10- depositu; 11- gaugero; 12- benetan/egiazki; 13- pinpilinpaua/tximeleta

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria:

Urdazubiko

NIKOLAURENEA jatetxean,
bi lagunentzako otordua

143. aleko irabazlea:

Jose Antonio Arregi
Iruritakoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzín; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak urriaren 16a baino lehen bidali itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):
AMERIKANOAK

- | | |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 6 - _____ |
| 2 - _____ | 7 - _____ |
| 3 - _____ | 8 - _____ |
| 4 - _____ | 9 - _____ |
| 5 - _____ | 10 - _____ |



EUSKARA jantzi!

**EUSKARA jantzi
nahi duzu?**

Solasa aberastu,
irakurriz eta idatziz
giro ederrean
trebatu eta ikasi!
Zatoz gurera!

Zeure herrian,
ekainera arte,
asteen 4 edo 6 ordu

MATRIKULA ZAITEZ:

IKAbortziarik, 948 637 796, bortziarik@ikaeuskaltegiak.eus
IKAmalerreka, 948 451 555, malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

**MAILA GUZTIAK eta EGA,
eta ON LINE ere bai**

euskara
errazago
egiten



Aldizkari honen egileak:

**Bortziarik eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

Bortziarik eta Malerrekako
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK
eta Baztango Udala



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia. Arretxea 22 31770 Lesaka

Malerrekako IKA Euskaltegia. Rosa seminario 6, beheka, 31740 Doneztebe.

